



ELEKTRARIDE

BALOREZKO PROPOSAMENA

Aiora Matak, Irene Echamendik, Adur Zubietak, Unax Agotek eta Malen Lopezek ElectraRide taldea osatzen dugu. Garraio zerbitzu berri bat proposatzeko asmotan gaude, patinete elektrikoak eguzki plakekin kargatu ahal izateako aukerarekin. Gure garraioaren berezitasuna Oreretako auzo guztietan 24 orduz patineteak eskuragarri edukitzea da. Honekin, garraio publikoaren ordutegiaren menpe ez egotea lortuko genuke, edozein ordutan eskuratzeko aukera eta auzo bakoitzean eskuratzeko aukera ere bai.

Bezeroek gure zerbitzua erabiliko balute, ez lukete garraio publikoaren ordutegiaz gehiago kezkatu behar, gure garraioa beti eskuragarri edukiko duzu eta. Gainera, auzo bakoitzean hainbat patinete egongo dira aparkaleku batean, auzo batetik bestera mugitzerakoan, erraztasun handiagoa edukitzeko. Ondorioz, gure bezeroek lasaitasuna eta segurtasuna izango dute auzo batetik bestera joaterakoan, gainera azkartasun handiago batekin.

Lehenik eta behin, gure zerbitzua Oreretan jarri nahi dugu, gure herrian ez dagoelako horrelako zerbitzurik. Gipuzkoan kokatuta dago, Donostiarik 10 minututara, eta bertan, hamasei auzo daude, eta beraien arteko lotura ez da oso zuzena, nahiko urruti baitaude eta Oreretako garraio publikoak ez du auzo batetik bestera joateko garraioa ahalbidetzen. Horregatik, nobedade bezala, eskeiniko dugun garraio mota hau aurrera badoa, jende gehiagok edukiko luke Oreretatik mugitzeko aukera. Gainera, Orereta garraio hau erabili ahal izateko prestatuta dago, herri osoan zehar zerbitzu hau erabiltzeko bidegorriak edo bide egokituak baitaude.

Zerbitzu hau aplikazio baten bitartez erabiltzen da, aplikazioan behin izena emanda eta zuri egokitzen zaizun tarifa aukeratzeko QR baten bitartez aparkaleku gertuenen patinetea hartu dezakezu eta bi ordu pasa aurretik aparkaleku batean utzi beharko duzu.

Beste aldetik, eguzki-plakak erabiliko genituzkeela ziurtarazi dezakegu. Kargagailu arrunt bat erabili beharrean, eguzki-energiarekin funtzionatzen duen bat baliatuko genuke bertako bateria behin eta berriz kargatzeko. Gauzak horrela, energia berriztagarriarekin lan egingo genuke, planetaren



ELEKTRARIDE

ongizatea kotuan hartuz. Ondorioz, patineteak behin erabilia aparkalekuan kargatzen utzi behar dira berriz ere hurrengo pertsonaren erabilerarako.

Gizartea erreparatuz, lana erraztuko liguke eguneko edozein unetan erabili ahal izango genukeelako. Esaterako, ez genuke autobusari edo topoari geltokian itxaroten egon beharko eta ez genuke ilerarik egin beharko bertan montatzeko. Gure patineteek, berriz, nahi duzunean erabiltzeko aukera ematen dute eta ez lukete arazorik suertatu beharko. Horrez gain, bestelako garraio zerbitzuen ordutegiak limitatuak diren heinean, guk proposatutako garraio honek ez luke arazo hau sortuko.

Lehen gure inguruan ez zeuden patinete elektriko hauek, eta orain guk herrian eskainiko genituzkeenez, jende gehiagoren eskura jarriko genuke zerbitzu hau, beraz eskuragarritasuna eskainiko genuke.